



2020ko APIRILAK 24-26

Bilbao Exhibition Centre
Ronda de Azkue, 1
E-48902 Barakaldo – Bizkaia
IFZ: A95135984

Tel.: +34 94 404 00 25 - 83
Fax zk.: +34 94 404 00 01
Helbide elektronikoa:
expovacaciones@bec.eu
www.bilbaoexhibitioncentre.com



EXPOSSIBLE!

EXPOVACACIONES AZOKAREN 41. EDIZIOAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

1. Antolaketa
2. Data eta ordutegia
3. Erakusketariak eta onartutako produktuak
4. Kontratazioa
5. Baldintza ekonomikoak
6. Derrigorrezko aseguruak
7. Erakusketariaren eskubideak
8. Muntatzea, merkantzien sarrera eta desmuntatzea
9. Harremanetarako datuak



2020ko APIRILAK 24-26

Bilbao Exhibition Centre
Ronda de Azkue, 1
E-48902 Barakaldo – Bizkaia
IFZ: A95135984

Tel.: +34 94 404 00 25 - 83
Fax zk.: +34 94 404 00 01
Helbide elektronikoa:
expovacaciones@bec.eu
www.bilbaoexhibitioncentre.com



EXPOSSIBLE!

DATA NAGUSIAK

Tokia eskatzeko lehenengo epearen bukaera	2019/12/31
Tokiaren fakturaren eta aseguruaren iraungitze-data	2020/03/24
Derrigorrezkoak diren zerbitzuen eskaerak jasotzeko epemuga	2020/03/23
Muntatze-lanen hasiera	2020/04/20
Muntatze-lanen bukaera eta produktuen sarrera	2020/04/23
	2020/04/24-26
Desmuntatze-lanen hasiera eta bukaera eta produktuen irteera	2020/04/27-29

PARTE HARTZEKO ESKAERA

Zk.

Sozietatearen izena:		Izen komertziala:	
Helbidea:			
Posta-kutxa:	Posta-kodea:	Udalerrria:	
Probintzia:		Herraldea:	
Tel.:	Fax zk.:	Helbide elektronikoa (fakturak bidaltzeko):	
IFK:		www.	
Arduraduna:		Kargua:	
Tel.:	Helbide elektronikoa (komunikazioetarako):		

PARTE HARTZEKO MODUA

TOKIA SOILIK

- Prezioa, m²-ko: **118 € + % 10eko BEZa** (erakusketak dirauen bitartean standa egunero garbitzea barne).
Gutxienez 12 m² Guztira, m²-tan:

STAND MODULARRA

STAND MODULARRA

- **12 m²-ko stand modularra** (gutxienekoa) **2.050 €**
- m² osagarria **155 € / m²**



STANDA, GUZTIRA: m² (gutxienez 12 m²)

PARTAIDETZA-BERMEA (5. eta 6. artikulauak)

- Partaidetza-bermea ordainduko da, honen arabera:

<input type="checkbox"/>	25 m ² -ra arte (280 €)	<input type="checkbox"/>	26 eta 50 m ² artean (360 €)	<input type="checkbox"/>	51 m ² -tik gora (450 €)
--------------------------	------------------------------------	--------------------------	---	--------------------------	-------------------------------------

DERRIGORREZKO ASEGUURUAK (7. ART.)

- Erantzukizun zibileko aseguruak. Prima: 115 € erakusketari bakoitzeko.
- Kalteen aseguruak. Prima: hitzartutako balioaren % 9,5. 199,5 € erakusketari bakoitzeko.
- Kalteen aseguruak kontratatu nahi dut, balio honetakoa: € (gutx. 21.000, 00 €)

BECen baldintza orokorrak eta Expovacaciones 2020 azokaren baldintza bereziak aztertu ondoren, behean sinatu duenak aitortzen du klausula guztiak onartzen dituela, eta erakusketan parte hartzea eskatzen du.

Data eta enpresaren zigilua

1. ANTOLAKETA

Bilbao Exhibition Centre-ri (BEC) dagokio EXPOVACACIONES 2020 azoka antolatzea eta zuzentzea. Helbide honetara bidaliko dira jakinarazpen guztiak:

BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A. (BEC)

EXPOVACACIONES

Ronda de Azkue, 1

E- 48902 Barakaldo

Telefono-zenbakia: +34 94 404 00 25 – 83

Fax zk.: +34 94 401 00 01

Helbide elektronikoa: expovacaciones@bec.eu

www.bilbaoexhibitioncentre.com

2. DATA ETA ORDUTEGIA

EXPOVACACIONES BECen azoka-eremuan izango da, Barakaldon (Bizkaia), 2020ko apirilaren 24tik 26ra. Ostiralean eta larunbatean, 10:30etik 20:00etara egongo da zabalik, egun osoz, eta igandean, berriz, 10:30etik 19:00etara; eta 09:30etik 21:00etara erakusketarientzat. Bisita-orduetan, erakusketariak standetan egongo dira, eta materiala ikusgai egongo da.

3. ERAKUSKETARIAK ETA ONARTUTAKO PRODUKTUAK

Azokaren xede diren sektoreetan sartzen diren jarduerak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak eska dezakete erakusketan parte hartzea. Erakusketan onartuko diren produktuen fabrikatzaileek eta haien banatzaile, agente zein ordezkariak erakutsi ahalko dituzte produktuak.

Sektore hauetako material, ekipamendu eta produktu guztiak onartuko dira: Bidaia-agentziak – Garraio-enpresak – Hotelak, higiezin agentziak, apartamentuak – Erakunde ofizialak, elkarte turistikoak – Prentsa – Bidaiak – Kulturalak, kiroletakoak eta aisialdikoak – Kanpinak eta karabanak – Itsas industriak – Handizkariak.

4. KONTRATAZIOA ETA PARTE HARTZEKO MODUAK

- 4.1. Kontratazioa gauzatzeko, onarpen-eskaera bidali behar da erakusketaren zuzendaritzara, behar bezala beteta eta sinatuta, partaidetza-bermea ordaindu izanaren ziurtagiriarekin batera, 7. artikuluko baldintza ekonomikoen arabera.
- 4.2. Ahal dela, 2019ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira onarpen-eskaerak, eta zer eskaera eta toki dagoen arabera erantzungo zaie.
- 4.3. Gutxienez 12 m² kontratatuko dira. m² zatiak m² oso gisa fakturatuko dira.
- 4.4. Hona hemen parte hartzeko aukerak:

- **TOKI LIBREA:**

Toki librea (gutxienez 12 m²) / 118 € / m² (standa egunero garbitzea barne).

- **«STAND MODULARRA»:**

Hauek hartzen ditu barnean:

- Eremuaren alokairua
- Stand modularra, melamina zurizkoa eta aluminiozko profilduna.
- Moketa, jaspe-grisaren kolorekoa. (beste kolore batzuen prezioa, m²-ko, 8,14 €-koa da)
- Bandera, sozietatearen izena jartzeko
- Argiztapena, 50 W / m²-ko
- Diferentziala eta automatiko magnetotermikoa.
- Entxufe monofasikoa, 220 V-ekoa, TT-rekin.
- Hargune elektrikoa, argiztapenerako / Industriaren baimena.
- Kontsumo elektrikoa, 2.000 W-ekoa (kontsumo handiagoa behar izanez gero, galdetu)
- Eguneroko garbiketa.
- Erantzukizun zibileko aseguruua.
- Kalteen aseguruua

5. ERAKUSKETARIAREN ESKUBIDEAK: DENDA ERABILTZEA, PASEAK, ENBALAJEAK, GONBIDAPENAK...

Zorua alokatzeko prezioak hornigai eta zerbitzu hauek hartzen ditu barnean:

- Zaborrak, txirbilak eta hondakinak hustea.
- Publizitateko materiala.
- Enbalajeak biltegitratzea; erakusketariak ordainduko ditu enbalajeak manipulatzeari, garraio-ibilgailutik deskargatzeari eta standera kargatzeari dagozkien kostuak.
- Paseak (muntatzaileak eta erakusketariak) eta gonbidapenak.

6. DERRIGORREZKO ASEGUURAK

Parte hartzeko baldintza orokorretako 22. klausularen arabera, BECek erakusketarako kontratatuko dituen aseguruak oinarritzko ezaugarri hauek izango dituzte:

6.1. Kalteen aseguruak

- **Oinarritzko estaldura:** Erakusketako gaien eta standen sute eta lapurreta, erakusketaren barrutian karga eta deskarga barne.
- Aseguruan sartzen diren salgaiak: Merkataritzako salgaiak (ebasketa izan ezik), salbuespen hauekin: salgai korrosiboak, sukoiak, leherkorrak, pozoitsuak, erradioaktiboak, animalia eta landare biziak, eskudirua, merkataritzako efektuak edo bankukoak, balore higigarrien tituluak eta kupoiak, edergarriak eta bitxigintzako gaiak, artelanak eta antzinako gauzak, aurretik ordaintzeko txartelak, makineria edo beste objektu batzuk muntatzeak zein desmuntatzeak irauten duen bitartean.
- **Aseguruak hartzen duen kapitala:** Erakusketariak onarpen-eskaeran bertan aitortutako kapitala hartuko du aseguruak; hala ere, nahitaezko gutxieneko kapitala 21.000 €-koa izango da. Erakusketariak ez badu kapitalik aitortzen, antolatzaileek ezarritako gutxienekoa kontratatuko dute, eta erakusketariak onartuko du BECek ez duela izango erantzukizunik kapital aseguratua baino gehiago edo gutxiago denean.
- **Prima:** % 9,5eko (milako) tasa aplikatuko zaio erakusketariak emandako balioari, hitzartutakoa denean, edo derrigorrezko gutxieneko kapitalari. Gutxieneko prima: 199,5 €
- **Frankizia:** Poliza kontratatzeko unean aseguru-merkatuan dauden baldintzen arabera zenbatekoa.

6.2. Erantzukizun zibileko aseguruak

- **Oinarritzko estaldura:** Erakusketaren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte materialak eta minak. Kanpo gelditzen da erakusketariaren menpe dauden langileek edo hark azpikontratututakoek izan ditzaketen lan-istripuen ondoriozko gizarte-erantzukizuna.
- **Indemnizazioaren muga:** 1.200.000 € ezbeharreko eta erakusketan gertatutako ezbeharrengatik. Gehienez 150.000 € min pertsonalen biktimetentzat.
- **Prima:** 115 € erakusketari bakoitzeko

6.3. Aseguruaren estaldurak 2020ko apirilaren 20tik 29ra iraungo du.

6.4. Hitzartutako polizen estaldurak, mugak eta baztertutakoak xehetasun handiagoz egiaztatu ahal izateko, erakusketariak euren eskura dituzte erakusketaren zuzendaritzako bulegoetan kontratatutako aseguruaren polizak.

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA ORDAINTZEKOAK

Ordaintzeko moduak:

- Banku-txekea, Bilbao Exhibition Centre-ren alde
- Banku-transferentzia Bilbao Exhibition Centre-ren kontura (bankuko ordainagiria erantsiko da):

- **BBVA: ES29 0182 1290 3802 0150 4440 SWIFT: BBVAESMMXXX**
- **KUTXABANK: ES52 2095 0611 0091 0588 0388. SWIFT: BASKES2BXXX**

Eskaera onartu eta atzeraezintzat jo dadin, partaidetza-bermea ordaindu behar da. Berme hori ezingo da kendu tokiaren eta zerbitzuen fakturretatik, eta erakusketariak amaitu eta 20 egunera itzuliko da.

Tokia eta aseguruak **2020ko martxoaren 24a** baino lehen ordaindu behar dira.

Onarpen-eskaera 2020ko martxoaren 24aren ondoren aurkezten duten erakusketariak faktura jasotzen dutenean ordainduko dute parte hartzeagatik zenbateko osoa.

Edonola ere, (i) bermeari, (ii) erakusketan parte hartzeagatik prezio osoari eta (iii) kontratatutako aseguruaren primei dagozkien zenbatekoak erakusketariak hasi baino lehen ordaindu behar dira.

Erakusketariak uko egiten badiot parte hartzeari, ordaindutako zenbateko guztiak galduko ditu, salbu eta standak beste partaide batek aloka badezake. Hala bada, bermeari dagozkien zenbatekoak galduko du.

Zerbitzu hauek hartzen ditu barnean prezioak: enbalajeak gordetzea; zaborrak, txirbilak eta hondakinak hustea; sei erakusketari-pase 12 m²-ko, eta beste hiru pase 20 m² bakoitzeko, muntatzaile-paseak, gonbidapenak, publizitateko materiala, eta hotelak eta bidaiak erreserbatzeko zerbitzuak.

BALDINTZA BEREZIAK

200 m² baino gehiagoko azalera hartzen duten standek % 10eko deskontua izango dute, eta 300 m² baino gehiagoko azalera hartzen dutenek, berriz, % 15ekoa toki osoan. Zenbateko horiei faktura egingo den unean indarrean dagoen BEZA aplikatuko zaie.



2020ko APIRILAK 24-26

Bilbao Exhibition Centre
Ronda de Azkue, 1
E-48902 Barakaldo – Bizkaia
IFZ: A95135984

Tel.: +34 94 404 00 25 - 83
Fax zk.: +34 94 404 00 01
Helbide elektronikoa:
expovacaciones@bec.eu
www.bilbaoexhibitioncentre.com



EXPOSSIBLE!

8. MUNTATZEA, MERKANTZIEN SARRERA ETA DESMUNTATZEA

2020ko apirilaren 20an hasiko dira muntatze-lanak, 08:00etatik 20:00etara, eta 2020ko apirilaren 23ko 15:00ak baino lehen bukatu beharko dira.

Erakusketariak nahitaez bete beharko ditu istripuak eta suteak prebenitzeko indarreen dauden xedapen guztiak.

Martxan dauden makinek zaraten inguruan indarreen dauden arauak bete beharko dituzte. Antolatzaileek baldintza horiek betetzen ez dituzten makinak martxan jartzea debekatu ahalko dute.

Erakusketariak nahitaez errespetatu behar ditu parte hartzeko araudi orokorrean indarreen dauden xedapenak.

2020ko apirilaren 27 eta 29 bitartean egingo dira desmuntatze-lanak, 08:00etatik 20:00etara.

9. HARREMANETARAKO DATUAK

- Merkataritza saila: Telefono-zenbakia: (+34) 94 40 40 025 expovacaciones@bec.eu
- Zerbitzuen saila: Telefono-zenbakia: (+34) 94 40 40 000 (3. luz.) serviciosexpovacaciones@bec.eu
- Administrazio saila: Telefono-zenbakia: (+34) 94 40 40 121 mdelcastillo@bec.eu
- Bisitarien saila: Telefono-zenbakia: (+34) 94 40 40 000 (2. luz.) visiexpovacaciones@bec.eu
- Akreditazioen saila: Telefono-zenbakia: (+34) 94 40 40 115 acreditaciones@bec.eu

Baldintza bereziak irakurri dituela eta haiekin ados dagoela frogatzeko, erakusketariak sinatu egin ditu.

Erakusketaria

Sinadura.....
